



BILBOKO UDALAK ETA BILBOKO KORAL ELKARTEAK 300 INTERPRETE BAINO GEHIAGO BILDU DITUZTE "BILBOKO KORALA GERTUTIK" ZIKLOAREN EDIZIO BERRI BATEAN

- Apirilean, maiatzean eta ekainean doako sei kontzertu izango dira hiriko hainbat gunetan.
- Ekimen honen bidez, Bilboko bi erakundeek kultura eta talentu koral eta instrumentala hiriko barruti guztietara hurbildu nahi dute, herritarrentzat irekia eta eskuragarria den esperientzia artistiko bat sustatuz.

(Bilbon, 2026ko apirilaren 24an). – **Bilboko Udalak** eta **Bilboko Koral Elkartek Bilboko Korala Gertutik** zikloaren 10. edizioa bultzatu dute aurten ere. Guztira, doako sei kontzertu eskainiko dira Bilboko hainbat gunetan apirilean, maiatzean eta ekainean. Ekimen honen helburua kultura eta talentu koral eta instrumentala hiriko barruti guztietara hurbiltzea da, herritarrentzako esperientzia artistiko irekia eta irisgarria bultzatuz.

Bilboko Koral Elkarteko abesbatzen eta instrumentu-taldeetako 300 interpretek baino gehiagok agertokia partekatuko dute edizio honetan, agerian utziz Bilboko erakundeak duen aberastasun musikala eta konpromiso artistiko eta hezitzailea.

Zikloa **apirilaren 26an**, igandea, 19:00etan hasiko da Milagrosa Elizan Jesus Guridi eta Aureliano Valle Orkestrak protagonista dituen kontzertuarekin. **Maiatzaren 8an**, ostirala, 19:30ean Iralako Frantziskotarren tenpluan, Bilboko Koral Elkartean Koru Sinfonikoaren eta kantu gelaren emanaldia izango da. Hurrengo egunean, **maiatzaren 9an**, larunbata, Santa Monica Monasterioaren txanda izango da. Bertan, 19:00etatik aurrera, Euskeria Abesbatzaren eta organo gelaren kontzertua izango da.

Maiatzaren 16an, larunbata, Bilboko Koral Elkarteko haur abesbatzek emanaldia eskainiko dute Miserikordia Etxeko kaperan, 17:30etik aurrera. Miguel de Unamuno-Bertendona BHIko Eskolan Kantari abesbatzaren emanaldia San Inazio parrokian izango da, **maiatzaren 23an**, larunbata, 18:00etatik aurrera. Txikienek protagonizatutako kontzertu horiek Bilboko Koral Elkartek txikitatik musika-prestakuntzarekin duen konpromisoa nabarmentzen dute.

Zikloaren amaiera **ekainaren 6an** izango da, larunbata, arratsaldeko 17:30etan Arestiko Conde Egoitzan, Gorabide Koralarren eta gitarra gelaren emanaldiarekin.

Ziklo hau hiriko barrutietan kultura-jarduerak deszentralizatzeko ekimenaren barruan kokatzen da. Ekimen horrek kultura- eta aisialdi-eskaintza gero eta auzo gehiagotara iristea sustatzen du, [Bilboko 2023-2033 Kultura Plan Estrategikoak jasotzen duen bezala](#).

SARE SOZIALAK:

- **BILBOKO KORAL ELKARTEA:** [INSTAGRAM](#) / [FACEBOOK](#)
- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#) | [TIK TOK](#)
- **BILBAO KULTURA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#) | [TIK TOK](#)
- **BILBAO IZAN:** [FACEBOOK](#) / [INSTAGRAM](#)

<https://www.coraldebilbao.com/>

www.bilbaokultura.eus